

BERRIGARA

56. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1992, martxoak 13




**Koldo
Lasa**
sukaldariarekin



Udalak
Ariznoa
taberna itxi



Herria
ezagutzeko
hitzaldi sorta



Saskibaloia:
talde nagusia
3. milara

Burberrys
Yuste
Unicen
Miguel Ibars
Lider
Exigency
Punto Blanco
Peyton

Gizonezkoentzako jantziak

egizabal

oinetakoak


Firma guzti hauen abala daukagu

CAMPER
Panama Jack
Privata
Runner
Pons Q.
Ferrerias
Paco Herrero
George's


Banco Guipuzcoano k

zorionak opa dizkio
Pol-Pol Mendizale Taldeari
bere 50. urteurrenean!

BANCO

 **Guipuzcoano**

XALO



Izozkiak
Kafetegia
Gozotegia

Gosariak
eta
Askariak

Ordutegia:
Goizeko 7etatik
gaueko 9etara
I Gandetan:
goizeko 11etatik
gaueko 9etara

Simon Arrieta 3

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, eta Eburne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elempuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea


Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Gorlako Bizikleta Igoera orainarte San Jose egunean jokatu izan bada ere, aurtengo XVIII. edizioa igandera aurreratu da. Bertako txirrindulari denboraldiari hasiera ematen dion proba honetan afizionatu eta beteranoen kategorietako espezialistarik onenak bilduko dira aurtengo. Beteranoen proba 11.30etan hasiko da eta afizionatuena 12etan. Igandean, Gorlan.

LARUNBATA 14

- **Pelota partiduak:**
- Ariznabarreta-Mendia/Arteaga-Santi, Laduche-Galarza III./ Bengoetxea IV.-Zezeaga eta Iribarren-Alberdi III./Telletxea-Andueza VI., Pelota-lekuan 16.30etan.

- **Kontzertua:**
- *Anje Duhalde eta Niko Etxart* gaueko 10.15etan, Antzuolako zine-aretoan.

- **Kontzertua:**
- *Zokoan* taldea, Soralu-zeko Gaztetxean, gaueko 10etan.

IGANDEA 15

- **Pol-Pol:**
- 50 urteurrena: 11.45etan meza San Martzialen eta 14.45etan bazkari herrikoia frontoian.

ASTELEHENA 16

- **Diapositibak:**
- Jon Lazkanoren diapositiba emanaldia, Kultur Etxean, 7etan.

ASTEARTEA 17

- **Hitzaldia:**
- *Artea Bergaran*. Hizlariak: Jesus Gil Massa eta Maria Jose Aranburu, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

FARMAZIAK



- 14 Mozos
- 15 Mozos
- 16 Camacho/Ruiz (A-rrasaten gauetz)
- 17 Puy/Morales
- 18 Guallar/Azkoaga
- 19 Estella/Español
- 20 Mozos/Irizar

ZINEA



Espias sin fronteras

• **LARUNBATA:** 5, 7.30 eta 22.30etan.

Dos duros sobre ruedas

• **OSTIRALA:** 22.30etan.
• **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
• **ASTELEHENA:** 19.30.

El robo de la joya

• **IGANDEA:** 11.30.

OGIA



Ogizun

ANTIA

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxlategi, Tfnoa: 76 15 09

Pepelu
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak gertatzen ditugu

Ibargal 15

Dagokionari

Onartzen dut, kotxea gaizki apartatuta baldin badago isuna edo multa jartzea.

Onartzen dut isun horren berri ematera edo kobratzera datorrenak ez daukala gure protestak entzun beharrik, bere lana betetzen bait dago. Horrexegatik barkamena eskatzen diot.

Baina, denok berdin onartzen badugu, berdin tratatu gaitzate, zeren eta larunbatetan, edo hiletak edo antzekoren bat dagoenean Epaitegi oste honetan bertan (espalo gainetan apartatuta ere) ez bait dute isunik jarzen.

Pribilegioak? Denontzat edo inorentzat ez.

A. Egaña

Bitoriano zure hitza euskaldun hitza ala...?

Otsailaren 3tik "Salto del Negro"ko espetxean Xabier Oregi "Panti" euskal preso gose greban dagoela eta, Bergarako Senideak taldekoek udaletxean mozio bat aurkeztea erabaki genuen. Hori zela eta, aurretik alderdi politiko guztiekin hitzegin genuen mozioa aurkezteko. EAJrekin hitz egin genuenean Alkatea eta alderdi honetako zinegotziak zeuden. Mozioa aurkeztu on-

doren eta presoen egoera nolakoa zen azaldu ondoren ezohizko pleno bat antolatzea eskatu genien hurrengo asterarte plenorik ez bait zegoen.

EEk eta PSOEk mozioa sartzeko esan ziguten. HBk, berriz, mozioari baiezkoa emango ziola agindu zigun. EArekin ere, hitzegin genuen eta mozioan agertzen zen guztiarekin bat zetorrela eta hori onartzeak herriko seme bategatik egin zitekeen gutxiena zela aipatu zigun Garitanok.

Martxoaren 3an senideen partaide batek mozioari udaletxean sarrera eman zion eta Alkatearekin hitzegin zuen. Senide honek plenoan hitza eman ziezaiola eskatu zion eta Alkateak bere agendan apuntatuz baiezkoa eman zion. Horretaz gain, Alkateak aipatu zion bere esku ez zegoela baina bera asko akordatzen zela Pantirekin.

Martxoaren 6an goizeko hamaika t'erdietan hasiera eman zitzaion. Pleno aurrera zihoala lau mutil gazte eta oso apainak sartu ziren pleno aretora. Jose Luis Elkorok gazte hauei identifikatzeko eskatu zien baina Plenoak gazte hauek identifikatzeko segitu zuen. Gazte hauek Ertzainak ziren. Non izango zen senideen sorpresa mozioa botatzeari ekin ziotenean eta HB ezik, beste alderdi guztiak mozioari ezetz botatu ziotenean.

Botoaren azalpena ematera pasatu zutenean, EAK esan zuen mozioan bizi-tzaren eskubidea ez zela agertzen eta puntu hori azaltzen ez zenez, beraiek

ezetz botatzen zutela. Zergatik orduan senideei baiezkoa agindu?

EAJk, beren alderdi politikoaren, EE eta PSOEn botoen azalpena eman zuen esanez, beraiek ez dutela mozio hori onartuko senideak ETArek atentatuak salatzen ez dituzten bitartean. Alkateak horrela plenoa bukatutzat eman zuen, senideetako partaide bati hitza eman gabe nahiz eta partaide honek behin eta berriro hitza eskatu. Alkatea zutitu eta alde egitera zihoa-nean gazte batzu pleno aretoko atea itxi zuten alkatea eta gainontzeko zinegotziak irten ez zitezen eta orduan lehen aipaturiko Ertzainak atea indarrez zabaldu zuten.

- Bitoriano, Ertzaintzari deitzeko zeren beldur zinen?

- Pleno aretotik osorik ez irtetzeko beldur zinen ala kontzientzia ez zenuen garbi?

- Zergatik agindu zenion, hitza izango zuela plenoan emateko asmorik ez bazenuen?

- Bitoriano zer inporta zaizu gehi-go zure partiduak agintzen dizuna ala giza eskubideengatik gose greban dagoen herriko semen bat hiltzea?

- Zuk ez daukazu ahalmenik erabakirik hartzeko, partidoak erabakitzen du zure orde?

Bergarako Senideak

Tiira ba!



Josu Okina

□ Eskalada

Udal Kirol Zerbitzuak apirilaren 6tik 11ra bitartean **Jon Lazkanok** emango duen eskalada ikastaroa antolatu du. 14 urtetik gorakoei zuzendurik, ikastaroa Labegaraietako Kiroldegian emango da lanegunetan arratsaldeko 6.30etatik 8etara eta larunbatetan 9etatik 12etara. Prezioa 1.000 pta.koa izango da bazkideentzat eta bazkide ez direnek berriz, 2.000 pta. ordaindu beharko dute.

□ Justo Garate

Udaleko Kultur Zerbitzuak Justo Garatek berak idatzitako eta berari buruz idatzi diren liburu eta artikulu guztiak bilduko dituen fondo bat sortuko du. Justo Garatek 10 liburu eta 550 artikulu inguru idatzi dituela kalkulatzen da.

Udalak Ariznoa taberna prezintatu zuen joan den astean

Prezedentea markatzen duen erabakia hartuz, joan den astean Bergarako Udalak Ariznoa taberna isteko erabakia hartu zuen, udaltzainek lokala prezintatu zutelarik. Xabier Gallastegi Udaleko Hirigintza Batzorde buruaren esanetan, *"aurreko legealditik datorren arazoa da eta Udalak behin eta berriro eskatu die jabeek Eusko Jaurlaritzak iharduera gogai-karrien gainean kaleratutako IGOKA espedientean jasotako neurriak bete araztea"*.

Kasu honetan auzokideen kexuak ere izan dira tartean lokalaren insonorizazio kaskarragatik eta Udalak kaso haundirik egiten ez zenez, Arartekora jo zuten. Xabier Gallastegik udala *"lokala itxi beharrean"* aurkitu zela dio, *"auzo-*



kideek beren eskubideak dituztelako eta bestalde, Arartekoak legea betetzen ez genuela gogorarazi zigulako, kontsekuente izan behar genuen".


Jabeak haserre

Ariznoaren jabeetako batek esan digunez, *"gauzak beste modu batean*

ere egin daitezke, azken finean 20 eguneko epea eskatu bait genien obra hasi bitartean, neurri batzuk betetz, lokala itxita ez izateko". Udal iturriek jakitera eman dutenez, beste bizpahiru lokal Ariznoaren antzeko egoeran omen dira eta legeak agintzen dituen neurrietara egokitu beharko dira.

Ur fluorazioa Urkulun

Amaitzear daude Urkuluko ura fluoraztatzeko behar den tresneria jartzeko 40 milioi inguruko aurrekontua duten lanak. Dekretu bidez onartutako uraren fluorazioak kariesak prebenitzea du helburu eta bildutako ura 30.000 pertsona baino gehiagok edatekoa den kasuetan ezarri beharreko neurria da. Ekolojistak, aldiz, neurri honen aurka azaldu dira, *"nahitaezko medikazio masiboa baita eta herrialde aurreratuenetan gaixotasunen eragile izan daitekeela susmatu delako"*. Gauzak horrela, Eguzkik dekretua bertan behera uzteko eskatu die instituzioei.



Tximak

Ileapaindegia

Fraiskozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzak .

- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

UXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

□ **Literatura**

Udaleko *Euskara eta Hezkuntza Batzordeak VII. Literatur lehiaketa* konbokatu du. Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edonor aurkeztu ahal izango da lehiaketara eta adinen arabera sei talde egingo dira. Euskara Zerbitzuan entregatu beharko diren lanak edozein jenerotakoak izan daitezke eta entregatzeko epea apirilaren 21ean bukatuko da.

□ **Boloak**

Joan den larunbatean Elgoibarren hasitako Gipuzkoako *Hiru Txirlo Txapelketaren* bigarren ihardunaldia larunbatean, hilak 14, Elgetako Bolatokian jokatu da arratsaldeko 5etan hasita. Partaideek 500 pta. ordaindu beharko dute eta sailkatutako 6 lehenengoentzat sariak izango dira, irabazleak 7.000 pta.ko saria eskuratuko duenarik.



Erregulazioa MAYCen

MAYC enpresak enplegu erregulazioa burutzeko eskakizuna egin dio lan delegazioari. Enpresa Komiteak enplegu erregulazioaren espediente sinatu ez duen arren, hitz egin dugun sindikatuaren ustetan, "enpresak ez du delegazioaren partetik inolako trabarik izango erregulazioa aurrera eramateko". Enpresaren asmoen arabera, erregulazioa apiriletik uztaile bitartean, hileko azken 8-9 egunetan jarriko da martxan. 220 langile ingururi eragingo lieke eta langile

horiek hil amaieran langabezia geratuko liriteke. 85 langile inguru, berriz, espedientetik kanpo geratuko liriteke, orainarte bezala jarraituz.

Joan den urtetik enpresa hau jasaten ari den salmenten galera eta makinaren stockatzea suabegotzeko egin nahi da enplegu erregulazioa. Horrela, MAYCek produkzioa gutxituko du neurri handi batean hilabete horietan. Aurrerantzean hartu beharreko neurriak salmenten arabera aztertuko dira.

□ **Salto del Negro**

Joan den ostiralean izandako Plenoan, Bergarako Udalak atzera bota zuen Senideak, euskal presoek elkarteak, Kanarietako Salto del Negro espetxean dauden euskal presoek (*Xabier Oregi, "Panti"*, tartean) egoera salatzeko aurkeztutako mozioa, HB izan zelarik mozioaren aldeko jarrera agertu zuen bakarra, pleno amaieran istiluak izan zirelarik. Salto del Negro espetxeko euskal presoak gose greban daude otsailaren 3tik, jasaten duten egoeragatik (jipoiak tartean), protestatzeko. Presoek "horrelako gauzak berriro ez gertatzea eta duintasunez bizi ahal izatea" eskatzen dute. Presoen senideek itxialdi bati ekin zioten igandean Donostiako Santa Maria elizan, Pantiren gurasoek ere parte hartzen dutelarik.

MEMESA



Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21



Bergara ezagutu

Pasa den asteartean eman zitzaion hasiera Kultur Etxean UNEDeko Geografia eta Historia Departamentuak eta Udaleko Kultur Zerbitzuak *Gure herriaren ezagupena* izeneko hitzaldi sortari. Asteartean Bizente Huizik eginiko aurkezpen orokorraren ondoren, Jose Mari Garmendiak *Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran* gaiaren gainean hitz egin zuen. Ostegunean, berriz, Xabier Larrañagak *Deba Haraneko historiaurrea* aztertu zuen.

Bergarako historiari buruzko hitzaldi hauek datorren astean jarraituko dute asteartean, hilak 17, arratsaldeko 7etan Jesus Gil Massa eta Mari Jose Aranburuk arteari buruz emango duten hitzaldiarekin eta apirilaren 9ra arte luzatuko dira. Tarte honetan Bergarako monografiaren 9 bildumatan parte hartu duten autore guztiek bere lanen azalpenak egingo dituzte, gure herriko historiaren ikuspegi ezberdinak eskeiniko dizkigutelarik. Sarrera dohainik izango da.

Txinpartak

✓ **Bergarako Udalak**, bulegoen leku aldaketa dela eta, udal bulegoak martxoaren 20an eta 21ean itxita egongo direla jakin arazten du.

✓ **Herri Batasunak** Bergarako abertzale guztiei dei egiten die datorren asteartean, hilak 17, *Urrats berri* prozesu zabala jarraituz, arratsaldeko 7.30etan Arrano Elkartean egingo den bileran parte hartzeko.

✓ **Antzuolako Idolaz** taldeak antolatutako bertso-paper lehiaketako saridunak: Jon Kortabarría eta Jone Lete 14 urtera arteko kategorian; 14-18 urte bitartekoan Miren Amasorrain eta Josu Arregi; eta hortik gorakoetan, berriz, Jesus Mari Areistegi eta Kruz Azkarate.

✓ **Anje Duhalde** kantariak kontzertua eskeiniko du asteazkenean, hilak 18, goizeko 12.30etan, Institutuko Aretoan.

✓ **Pol-Polaren 50. urteurrenaren** ospakizunak izango dira igandean; eguerdiko 11.45tan meza San Martzial elizan eta ondoren, arratsaldeko 14.45tan, bazkari herrikoia Bergarako pelotalekuan. Txartelak Pol-Polen jaso daitezke.

✓ **Jon Lazkanok** *Patagoniara azken espedizioa* diapositiba emanaldia eskeiniko du astelehenean, hilak 16, arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean.

✓ **Mendia Bizirik**ek *Zabortegeien bidea* irteera iragarri du larunbaterako, hilak 14, goizeko 9etan Pol-Poletik.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

M.
OSINAGA

Etxeko
erreformak

Sukaldeko
altzariak

Espaloia z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

Erakusketa

Adbay
Crhristopher

martxoaren 3tik 30era

NAHIKARI

Mahasterreka 20,
Tfnoa: 76 57 71
BERGARA

Koldo Lasa

Lasa jatetxeko sukaldariarekin:

"Euskaldunak mutur finekoak gara"

Koldo Lasa, 40 urte, Lasa jatetxeko sukaldari nagusia dugu. Gazte-gaztetan ekin zion sukaldaritzan bere aitaren eskutik eta azken 20 urtetan, soldaduzka amaitu zuenetik, Lasako sukaldearen ardura darama. Irizar, Arzak, Subijana, Argiñano e.a.en artean, Euskal Sukaldaritzaren punta-puntan aurkitzen da.


1.929an bere aita-jauna Franciscok zabaldu zuen jatetxeak, datorren urteko amaieran egoitza aldatu eta berria irekiko du Ozaeta jauregian. Bere bizitzari, sukaldaritzari, Ozaetako jatetxe berriari eta beste kontu batzuri buruz jardun dugu, Bidekurutzetako jatetxe zaharrea bertan.

- Noiz hasi zinen sukaldaritzan?

- Bergarako seminarioan batxilergo ikasten nengoela ekin nion hemen, aitari laguntzen. 14 urte nituenean, aitak Donostiako Rigoli kafe-tegia, orain La Oca self-servicea dagoen tokian zegoena, hartu zuen eta uda guztietan sukaldean laguntzen nion. Ondoren, Arcos de la Frontera joan zen eta han ere hiruzpalau udatan aritu nintzen. Handik lasterrera istripuz hil zitzaidan aita eta hona etorri

nintzen; soldaduzka amaitu eta 75ean hasi nintzen hemen.

- Koldok urte pilo eman du plater artean. Esan genezake, 8 urte zituela ama Maritere hil eta bere izebekin batera Durangotik Bergarara etorri zenetik, Lasako sukaldean sartuta igaro dituela urte gehienak. Donostian turismo ikasi zuen, baina sukaldaritzan dakien gehiena bere aita Sebastianek eta Lasan urteak eman dituen beste emakume



batek, Rufina Jauregik, hain zuzen ere, erakutsi diote. Osaba Josek ere, aitarekin batera urteetan Lasako sukaldari izandakoak, asko erakutsi zion.

- Aitarengandik asko ikasi nuen, sukaldari eta gozokin haundia zen eta. Ingalaterran sei hilabete eman nituen sukaldaritzan ikasten, Frantzia beste sei...

Sukaldaritzan nere bizitza da eta sukaldea, berriz, kimika laborategia, produktu naturalak erabiltzen dituen laborategia.



LIZAR
Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

AFA - BI
Manufakturak, S. L.
P.V.C. Arotzaintza eta aluminioa
Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

gero asko irakurtzen dut, eta laborategia sukaldetan daukadanez, egunero-egunero esperimentatzen dut.

- *Semeak sukaldera arrimatzen al dira?*

- Etortzen dira bai. Haundienak 10 urte ditu eta gabonetan turroiak egiten lagundu zidan, baina nahiago dut gutxitan etortzen badira, behartuta badatoz, azkenean, nazkatu egingo dira eta. Hori bai, txokolatearekin nabilenean hirurak arrimatzen dira.

- *Koldo, zer da zuretzat sukaldaritzza?*

- Zer esango dizut ba..., sukaldaritzza nere bizitza da eta sukaldia kimika laborategia, produktu naturalak erabiltzen dituen laborategia.

- *Eta Euskal Sukaldaritzza?*

- Munduko sukaldaritzza onenatarikoa, asko landutakoa eta parerik gabeko lehengaiak erabiltzen dituen, arrainak eta barazkiak batez ere.


- *Euskal Sukaldaritzza berriak zer aportatu dio lehenagokoari?*

- Sukaldaritzza berria, zaharrean oinarrituta dago. Berrikuntzarik nabariena, platerren presentazioan eman da. Horrez gain formula berriak entsaiatu dira, makailoa prestatzerakoan, esate-

rako, asko aurreratu da. Bertako produktuekin gauza berri asko egin dira, baina sukaldaritzza zaharra sekula ahaztu gabe.

- *Euskal Sukaldaritzza estatuko onena dela esan genezake?*

- Bai, bai, dudarik gabe, eta mundu mailan aurre-aurrean dago. Munduko onena japoniarra dela diote. Nik ez dut oso ondo ezagutzen, saiakera batzuk egin eta poliki-poliki ezagutzen ari naizen arren. Frantziarra ere asko landutako sukaldaritzza da, han gaztetatiik hazten dituzte sukaldariak eta hemen ere gero eta sukaldaritzza eskola gehiago dago eta hortik jo beharko genuke, gure kultura maila haunditzeko.



tzuek bigarrenari garrantzia haundiagoa ematen diote, nik, aldiz, lehenengoa zaintzen dut gehiago.

- *Euskaldunok ondo jaten dugu?*

- Ondo eta asko gainera, sabela ondo berdindu arte jaten dugu hemen. Euskaldunak mutur finekoak gara.

- *Sukaldari batek zer ez luke sekula egin behar?*

- Ondo ez dagoen janari bat ez nuke sekula mahai gainera aterako.

- *Lasajartetxeari fama gehien eman dion platerra zein da?*

- Fritoak. Horiez gain, arrainek ere ospe haundia eman digute eta azkenaldian onddoak ere asko eskatzen dira, berakatz fresko eta trufarekin batera egindako onddoak. Amorrain eta izokin umatuak, bestalde, Euskal Herri osoan geuk egiten ditugu bakarrik...

Koldok lantokiz aldatuko du datorren urte bukaeran, Ozaetako jauregia erosi baitu Lasak, bertan jatetxe berria jartzeko asmoarekin.

BERGARA BOLTSAK

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetariko konfekzio industrialak


✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



- *Gosariari, bazkariari ala afariari, zeri ematen diozu garrantzi gehiago?*

- Ingelesak gosariari ematen diote garrantzi gehien, baina nere ustez baraurik ordu asko egoitea ez da txarra. Esan nahi dut, gosaldu gabe edo gosari txiki batekin ere egon gaitezkeela, bazkaria ganoraz egiten badugu. Lasaitasunez jatearen aldekoa naiz eta fruta jatekotan, bazkaldu aurretik beti.

- *Joan zen astetik ostiral eta larunbatetan, afariak ere ematen dituzue. Zergatik?*

- Laster baten Ozaeta Jauregian jatetxea irekitzeko asmoa daukagu eta lehenbailehen merkatu ikerketa egitea pentsatu dugu, gaeuz jendeak nola erantzuten duen jakiteko. Ozaetan irekitzen dugunean, gosariak, bazkariak, afariak eta

behar direnak eman beharko ditugunez, ahalik eta aguruen lanari ekin beharko diogu, horregatik hasi gara astebukeratan afariak ematen.

- *Eta noizko irekiko duzue Ozaetako jatetxea?*

- Asmoa datorren urteko bukaerarako zabaltea da. Obrak adjudikatzeotan gabiltza orain, lanean berehala hasteko. Gero, obrak urte baten bukatzea espero ditugu.

- *Eta zernolako jate-txea izango da Ozaetako?*

- Etxeak hiru solairu izango ditu: goikaldean guretako etxebizitzak jarriko ditugu eta beste bi-etan jatetxea. Enpresa bazkarietarako jantoki bat eta pintura edota eskulturentzako erakustoki bat ipiniko ditugu lehen solairuan; behean, berriz, eguneroko baz-

Izkutuko kontuak

- **Munduko sukaldari onena:** Paul Bocousse frantziarra.

- **Estatukoa:** Luis Irizar.

- **Subijana ala Argifiano:** Maila haundikoak dira biak.

- **Gustokoen duzun janaria:** Legatza saltsa berdean eta odolosteak.

- **Ardo gorria ala beltza:** Beltza eta zaharra.

- **Etxean sukaldaria nor?:** Neu.

- **Emakumea konkistatzeko zure sukaldari arteak erabili dituzu inoiz?:** Ez.

- **Dietarik egin al duzu inoiz?:** Bai, kolesterola jeisteko.

- **Euskal sukaldaritzari nota 0tik 10era?:** 11.

- **Kritiko gastronomikoei nota 0tik 10era?:** 8.

- **Atzaparrak txupatzen dituzu?:** Bai.

- **Ogitartekoak gustoko dituzu?:** Bai, antxoi-lazkoak sarritan prestatzen ditut etxean.

- **Eta hanburgesak?:** Etxean egindakoak bai, besteak ez.

- **Afari erromantiko batetan zer gertatuko zenioke emazteari?:** Ostrak, ganbak plantxan eta kokotxak.

- **Irla desertu batetara zer eramango zenuke?:** Emakume bat, eskopeta bat eta bizikleta bat.

- **Janari afrodisiakoetan sinisten al duzu?:** Bai, ostrak eta pikantea duten janariak asko animatzen dute.

karietarako jantokia, sukaldeak e.a. Horiez gain, ezkontzetarako beste jantoki haundi bat erai-kiko dugu kanpokaldean, orain lorategia dagoen tokian 250 bat lagunendako, bere sukalde eta guzti. Lorategia txukundu eta aparkalekuak

ere jarriko dira.

- *Koldo, ordu libreetan zer egiten duzu?*

- Kirola. Mendiko Bizikletan, antxintxiketan eta igeriketan aritzen naiz. Triatloi txikitxo bat edo beste ere egin izan ditut...

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

POL-POL

Ale berezia


Elkartearen 50. urteurrena

1.992, martxoak 15



1.942 - 1.992
Urte askotarako!!

Zorionak!! Pol-Pol



Joseba EGIBAR
(Mendigoizalea)

Zoriontzear gain, eskerrak eman behar dizkiot Pol-Polari, azken finean berari zor bait dizkiot mendira egindako lehen irteerak. Francoren denboran ez zegoen aukera haundirik; diru mailan ere justu samar ibiltzen ginenez, mendia aukera merkea eta probetxagarria suertatzen zitzaigun lagunartean momentu ahaztezinak igarotzeko.

Pol-Polaren oso oroimen ona daukat eta ea beste 50 urte betetzen dituzten!! Gaur, tamalez, giro hori erabat galdu dela somatzen dut, jendeak uste ez badu ere, mendia usteltzen ari delako. Etxe komertzialak sartzen diren momentutik, malo. Diruak errentagarritasuna bilatzen du eta enbidia asko sortarazten ditu.

Luis PEÑA SANTIAGO

(Ibiltaria)

Egia esan, Pol-Polarekin ez dut ia harremanik izan. Baina edozeinek 50 urte betetzea meritu haundikoa bada, mendizale talde batek are gehiago, pertseberatu gutxi egiten baitugu gure herri honetan.

Ni *Enara* Mendizale Taldeko kidea naizenez, Pol-Polekoak auzokide ditugula esan genezake, eta elkarteak bihotzez zoriontzea baino ez zait geratzen, mendiarekin lotutako hainbat aktibitate antolatu eta mendiaren alde lan garrantzitsua burutu bait du.

Antton ITURRIZA

(Kazetaria)

Menditalde batek, bere ekintzetatik aparte, paper garrantzitsua bete beharko luke herri baten giza egiturari. Igaro den mende erdi hau aztertuz, Pol-Pol Mendizale Taldeak Bergarako giroan eragin haundia izan duela esan genezake zalan-tzarik gabe. Aita Serafin Esnaolak bultza-

turik, Pol-Polek martxan jarri zuen mendirunzko gazte mugimendua Euskal Herriko talde guztiarentzat eredu eta erreferentzia izan da. Lan honen ondorioak herriaren osasun sozialean eta mundura atera diren alpinista bergararren nabaritu da. Eta horren lekuko dira herriko mendigoizalek osaturik Trango eta Dhaulagirira abiatuko diren espedizioak.



Juanjo ARRIETA

(Gorla Alpino Taldeko Presidentea)

Nik Pol-Pola eza-gutu nuenean beterranoena zen batipat, eta hurrekin hasi zenean arrakasta haundia ezagutu zuen. Gaurko egunean mutikoekin egiten du lanik onena, nahiz eta beterranoen sailak ere jende de-xente bildu. Pol-Polaren lana gorai patu nahi dut, azken bate-

an sozialki eta kulturalki berebiziko garrantzia izan baitu Bergaran; kezka bat zuten guztiak bertatik pasa dira eta elkarteak inkiertude horiek bideratzeko aukera eman die sortutako sekzio ezberdinekin.

Pako IRIONDO

(Vasco-Navarrako Presidentea)

Mendizaleen artean hain ezaguna eta maitatua den Bergarako Pol-Pol mendizale taldeari bere 50. urtebetzean zorionik maitakorrena bidali nahi diot. Euskal Herriko mendi elkarten artean, garrantzitsua dugu Bergarako eta horrelako ospakizun baten aurrean bihotza asko alaitzen zait.

Elgoibarko Morcaikoko lehendakaria nintzenez harreman oso estuak nituen Pol-Poleko adiskideekin eta oraindik, lagun asko mantentzen ditut. Ondo gogoratzen ditut, Pol-Poleko iturria konpontzen, bi elkarteetako kideok elkarrekin ibili gine-neko egunak, baita hara eta bestera egindako mendi irteerak ere...

POL-POL

Berrigarak eta Pol-Pol Mendizale Elkarteak elkarlanean egindako eranskina.

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea, Errotalde Jauregia, 20.570. Bergara.

Tfnoa/Faxa: 76 03 97

Babeslea: Eroski.

Erredakzioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Edurne Arenaza.

Kolaboratzaileak:

Aitor Aranzabal
Maripi Laskurain
Nerea Alzelai
Juan Carlos Barrena
Damaso Gallastegi
Felipe Uriarte
Serafin Esnaola
Juan Luis Bikuña
Antonio Arrillaga
Andoni Larrañaga
Pol-Poleko Zuzendari
Batzordea eta sail
ezberdinak.

Argazki laborategia:

Berrigara eta Pol-Poleko artxiboa.

Inprimategia:

Gertu Koop. E.
(Zubillaga. Oñati).

Banaketa :

Txantxangorri Taldea.

Tirada: 3.500 ale.

Copyright:

BERRIGARA.

Lege gordailua:

SS 50/ 91.

ISSN: 1130-6599.

Urrezko eztaiak


Pol-Pol Elkartearen historian zehar bazkide izan diren eta diren guztiei nire agurrik eta zorionik beroena eman nahi diet une berezi hau aprobetxatuz.

Pol-Pol mendizale taldeak 50 urte betetzen dituen honetan mendizale-tasunak Bergaran izan duen maila guztietako eboluzioa aztertzeko une egokia izan daiteke: hasiera baten inguruko mendi-terra, Aralar, San Donato, e.a. etara, egiten ziren irteera alaiekin hasi eta urrutirako ametsak ere piztu dira: Pirinio, Alpeak, Andeak,

baita Himalaia ere. Uda honetan Himalaia aldera joango den espedizioari laguntzen ari bait gara.

Eta bukatzeko, gure Pol-Pol taldea hain indartsu egiten lagundu duzuen gazte eta ez hain gazteei aurtengo antolatutako irteera eta iharduera mordoxka honetan parte hartzen jarraitu dezazuen animatzea.

Besterik gabe, elkarteko lehendakariak agurtzen zaituzte.



Andoni
LARRAÑAGA



Pol-Poleko sortzaileekin

"Mendi talde baten beharra somatu genuen"

Orain 50 urte bi gizon hauek beste batzurekin batera izandako ideiak zutik dirau. Anjel Jauregi eta Luis Bikuñak ezin dute ia sinistu ere egin Pol-Polek urte hauetan herritarren artean lortutako arrakasta.



Luis Bikuña, Pedro Marco Gantxegi, Antonio Raizabal, Alberto Osinaga, Anjel Jauregi, Ignacio Murua-mendiaraz bergarrek eta Manolo Zubia eibartarrak mendira joateko zuten zale-tasunari irtenbide bat eman nahian jaio zen Pol-Pol Elkarte 1.942ko martxoan.

Mendia eta Politika

Talde sortzaile hartatik oraindik Antonio Raizabal, Angel Jauregi eta Luis Bikuña bizi dira; Anjel Jauregik ondo baino hobeto gogorazten ditu elkarte sortzeko egindako batzarrak (orain Deportivo tabernan dagoen tokian) eta Gobernu Zibilarrekin izandako arazoak. "Guk elkarte sortzeko beharra sentitu genuen, men-

dia izugarri atsegin bait zitzaitzun. Jakina, garai haiek ez ziren oraingoak bezalakoak, ezta antzik ere, eta lan asko egin behar izan genuen frankismo garaian mendi elkarte bat sortu ahal izateko, politika asuntotan

"Elkartea osatzeko orduan denak trabak ziren"

sartuko ginela beldur ziren".

Behin bizpahiru batzar egin ondoren elkarte lehen presidentea aukeratzeari ekin zioten, "Felix Iñarrak laguntza haundia eskeini zigun eta presidente bezala oso ondo lan egin zuten elkartearen alde".

Gobernadorearen bai-

mena ere lortu beharra zegoen... Trakak baino ez, baina azkenean, inolako subentziorik gabe, mendian biltzen zirenek lanari ekin zioten eta oraindik ere lan haren fruituak jaso ditza-kegu. Anjel Jauregik ez zuen

ta piku bazkide dira".


Lehendabiziko urteetan, beste aktibitate askoren artean, buzoiak kolokatu, iturriak eraiki, edateko urik ez zuten baserrietan ur instalakuntza lanak etab. luze bat egiten zuten... Pol-Poleko zenbait bazkidek baserriarrek zuten erlazioari esker ematen ziren askotan halako laguntzak.

Aldaketak

inoiz pentsatu elkarte hainbesteraino haziko zenik, "orain gutxi Andoni Larrañagarekin elkartu eta elkarteak zenbat bazkide zituen galdetu nion". Harrituta geratu nintzen, "gure denboran inoiz ez ginen 100 lagun baino gehiago ibiliko eta orain, 1000

Hasiera batetan ez zen kuotarik ezarri, eskote edota kaja jartzen zen. 43.etik aurrera, "refujioa"ren proiektuarekin hastean, 250, 500 eta 1.000 pta.ko apor-tazioak ezarri ziren, gaur egun 1.300 pta.ko kuota kobratzen zaie bazkideei. Elkartak aldaketa haundia

Luis Bikuña
ezkerrean eta
Anjel Jauregi.



izan du ordutik, eta ez Anjel eta ez Luisek ere ez zuten imajinatzen 50 urte eta gero elkarteak hainbesteko indarra izango zuenik. Igan-dean ospatzeko modukoa...

"Ez genuen uste elkarteak hainbeste haziko zenik"

"Omenajea baino gehiago deskribaezinezko satisfazi-ñoa daukagu elkarteak urteotan lortu eta herriko Kultur bizitza suposatu duenagatik" dio Anjelek.

Orduan akanpadarik ez zen egiten, elkarteak materialik ez zuen eta. Ez materialik eta ez oraingo mediorik ere, "Txindokira joateko adibidez bezperan irten behar izaten genuen". Orain, fundatzaileak, ez dira jadanik mendian ibiltzen baina beren semeei igande goiza non pasa duten galdetu eta hauek Txindokin izan direla erantzundakoan iribarrea botatzen dute. Nola aldatu diren gauzak!

Luis Bikuñak mendiko zaletasuna piztu zien txikitatik bere seme-alabei.



50 urte argazkitan

Pol-Poleko etorkizuna

Berrigaratik, Pol-Poleko gaztetxoei buruzko lantxo bat eskatu didate. Talde hau 1.969. urtean hasi zen. 300 neska eta mutil koskor bildu zirelarik hamar urtetik hamalau bitartekoak.'

Urte gozoak izan ziren, neretzat behintzat, urte haiek.

Igandero-igandero mendiragoizeko zortzietan, ostegunero 80 bat gaztetxo batzarretara, Pol-Pol zaharrean... Batzar ederrak!.

Akanpadak, "maritza reguladak"... eta Pol-Pol zaharreko sukalde zahar hartako afariak laguntzaile gazteekin...

"Burua argitu, bihotza indartu, koipea urtu, giharra gehitu eta osasuna sortu", hori zen gure helburua.

"Euskadi ezagutu", zen gure beste asmoetako bat.

Lehenengo Bergarako mendiak ezagutu, gero Bizkaikoak eta Arabakoak. Baita Nafarroakoak ere. Behin baino gehiagotan Aralarren izanak gara eta han akanpada eginda ere bai.

Gaztetxoak, orain bezala, urte haietan ere, bihurrikeriak egiten bazekiten; baina ondo konpontzen ginen. Zintzoak ziren.

Urtero ibilaldi bat Donostiara. Oriotik, mendiz eta oinez, Igeldora. Han autobusetara berriz eta Paseo Berrian, bazkaldu eta arratsaldean Atotxara Reala ikustera. Eta ordaindu gabe!


Urte haietako zenbat gauza esan litezken!

Eta laguntzaileak? gazteak: 18-20 urtekoak, 20tik gorakoak, helduak: 40-50 urtekoak.

Denak laguntzaile onak, oso onak. Haiei eskerrak egin ahal izan zen lan eder hura.

Oraindik jarraitzen du "Gaztetxo taldeak". Oraindik ere taldeka mendira joaten jarraitzen dute. Ez da bazia galdu.

Serafin
ESNAOLA



Don Serafin, Bergarako herriak omendu zuen egunean, Gorlako errefujioko aterpean.



Gaztetxoen irteeretako bat, Arantzazun.



Arantzabal anai-arrebak, txikitatik mendizale gogorrak.



Ezkerretik eskumara, Antonio Larrañaga, ezezaguna eta behean, Honorio Agirregabiria eta Jose Mari Ezpeleta.

Pol-Poleko Areto Nagusian ekitaldi ugari antolatu izan dira.



Mendia eta mendizaleetasuna

Mendia eta mendizaleetasuna: kirola eta askatasunaren artean.

Mendia niretzat askatasunaren adierazgarri izan da beti. Askatasun hitzaren berezko esanabiaren osotasunean. Eta mendizaleetasunak atzean eduki ditu, edo orain urte batzuk bazituen behintzat, beste esanahi batzuk: abertzaletasunari eustea, diktadura garaiari erantzuteko modua, eta kultur oinarriei lotura; gure lurra, kirola bera ezagutu..., eta, azken baten, askatasun bila ekitea. Askatasuna letra haundiekin idatzia.

Gure mendietara egin nituen lehenengo irtenaldiak, beste guztiok bezala, nire aitaren eskuari helduta ekin nion. Gerotxoago, nire "gaztetxo" aldian, pozik eta errespetu haundiz gogoratzen ditut "finalistaren egun" haiek, Pol-Pol taldeko buruek mendi lehiaketa amaitu genuen guztioi dominak ematen zizkigutenean. Jaiegun haundia zen hura, duda barik. Lino Lazkano, gizon jatorra, ekitaldi aurretik aukeratutako mendi gainean elkartutakoei zuzendu, eta bere hitzalditxoak euskaraz hasten zuen: "mendizaleok, gora

bibotzak". Ilea laztu egiten zitzaigun. Eta are gehiago, Guardia Zibilen "bikote bannaezina" handik metro gutxitara zegoela pentsatuz gero.

Haren ostean beste aldi bat heldu zen. Zenbat batzarren lekuko isil izan ote dira gure Mendiak...

Eta geroago, kirolaren garaia, politikaz zipristindutako kirol garaia...

Iñaki Osinaga, eskaladaren aintzindaria Bergaran, benetako maisu izan nuen, eta laguna gainera, adinean aldea badaukagueren, eta oraindik ere lagun ederra (haserretu ez bada behinik behin).

Haren "cuatro latas"ak autoak berak pentsa zezakeen baino (autoak pentsa badezake) hainbat joan-etorri gehiago egin zituen: Gredos, Pirineoak, Sierra de Cantabria, Macizo Central, Urbian, Moncayo, picos de Europa...

Zenbat oroimen, eh, Iñaki?



Ezkerretik eskumara lehen 11 presidenteak: Felix Iñarra, Jon Ezpeleta, Jose Mari Arizmendi, Jose Inazio Etxeberria eta Luis Payros. Goian; Mikel Larrañaga, Jose Luis Kapanaga, Fernando Agirre, Juan Mari Errasti, Julio Retegi eta Juan Carlos Barrena. Geroztik, Gregorio Plazaola, Felix Beitia, Yulen Unamuno, Iñaki Andueza, Felipe Uriarte eta Andoni Larrañaga izan ditugu presidente.



Hasierako talde sortzailea



J. Luis BIKUÑA

Mendizaleak aurrera!!

Hasierako irteerak, elkartearen inguruan sortutako txutxumutxuak...

Pol-Polaren sorreratik 50 urte betetzen diren honetan, mendizale elkartearen historiaren zatitxo bat aldameneko orrietako argazkietan bildu dugu. Berrogeitamar urte horietan egun haundiak, urte haundiak, bizi izan ditu mendizale taldeak, horietako batzuk jarraian aipatuko ditugu:



egoera kaskar xamarrean zegoela eta, berriztu egin zuten mendizale taldeko ki-deek.

✓ Edozein elkarteren historiari gainbegirada bat ematerakoan, sorrera eguna sekula ahaztu ezin dezakegun eguna da, eta pol-pol-tarrek 1.942ko martxoaren 15a ahaztezina dute. Egun horretan, agintariekin hamaika eztabaida izan eta negar malko ugari ixuri ondoren, zazpi mendizaleren, zazpi abetzaleren, ametsak egia bihurtu ziren. Txoko tabernan, gaurko Deportibon, jarritako Simon Arrietak pintatutako orma-iragarkiak berehala jaso zuen erantzuna: mendizale elkarte bat sortzeko deialdira herritar ugari azaldu zen. Horrela, eta Felix Iñarra buru zela sortu zen Pol-Pol Mendizale Taldea.

✓ Pol-Pol Mendizale Taldeak izen bereko iturriari zor dio bere izena, 1.926an eraiki zen iturriari. 1.960an,

✓ Pol-Polak lau egoitza ezberdin ezagutu izan ditu 50 urtetan: 1.942tik 1.950era bitartean, Ollagorra tabernaren sotoan, "*submarinoan*", kokatu ziren mendizale taldearen bulegoak. Handik, eta 1.965.era arte, Artekalen, lehen Paldai taberna zegoen ondoko lokal batzuetara pasa ziren; 1.965etik 76ra, Komenio kaleko San Pedroko parrokiako etxearen azkeneko pisuan jarri ziren, azkenik, 1.976an, gaur dauden lekuan ipini zirelarik.

✓ Hasierako urteetan, Larraitzen tipi-tapa hasi eta Huarte Arakiletik Aralarko San Migelera egiten zituzten ibilaldiak oso ospetsuak izan ziren. Buruahuste ederrak, ordea, Larritzerañoko bidaia antolatzerakoan, sortzen zitzaizkienak. Normalean, kamioia jendez bete eta, kantu batean, hantxe joaten

ziren. Beste batzuetan, "*Txori Urdinean*", hau da, Inazio panaderoaren furgonetan, abiatzen ziren.

✓ Mendizale porrokatuek, mendi lehiaketak antolatzen zituzten noizean behin: ibilaldi neurtuak, e.a. 1.942-43 denboraldian, lehen sari banaketak egin ziren. Felix Iñarra Presidenteak, domina bana banatu ziren, sari modura, Pol-Poleko lehen mendizale fin haiei. Urbiako zelaietan izan zen hori.



✓ Mendi irteera gehienak Euskal Herriko mendi-etara egiten baziren ere, sarri askotan, mugaz bestaldeko gailurretara iristea lortu zuten bergarar mendizaleek. 1.959an, Antonio Arin, Kontxi Mintegiara eta beste lagun batzuk, Mont Blanc-eko gailurra zapaltzea lortu zuten. Bergararren "hazaña", *La Voz de España*ko lehen orrialdean agertu zen. Herrian zeudenek notizia ezagutu zutenean, ia ezin zuten sinistu ere egin. Aurreko urtean eibartarrek egindako saiakera ustela gertatu zen, bergararrek, ostera izugarritzko garaipena lortu zuten Frantziako Alpeetan.

✓ Gaur egun, gazte, gaztetxo edota beteranoen irteerak normalean egun baterako izaten badira ere, 60ko hamarkada arte, Txindokira igotzeko, esaterako, bezperan irten beharra zuten. Haiek bai eskurtsioak haiek.

✓ Benetako eskurtsioak, Don Serafinek gaztetxoekin antolatzen zituenak... Bergarara 1.969an iritsi zenean, berehala hasi zen txikiek lanean. Gaztetxo taldea berak bultzatu zuen neurri haundi batean; zinemagintza, argazkigintza..., berak eman zituen ezagutzera.

Elkartearen inguruan jaiotako sailak

Pol-Polak mendiarekin loturiko 6 sail ezberdin biltzen ditu



ARGAZKILARITZA eta mendizaletasuna eta argazkilaritzak lotura handia izan dute betidanik. Bergaran ere, Pol-Polaren barruan jaiotako erretratugileen kolektiboak talde sendoa osatzen du. 15 lagun inguruk koloretan zein zuri-beltzean lan egiteko aukera dute Pol-Poleko laborategian; elkartearekin kolaborazio estua ematen da erakusketak, ikastaroak edota rally fotografikoak antolatzeko orduan. Gainera prest ditugu beti ikasitakoa erakusteko. Datozen belaunaldiek, neurri handi batean, sail honek egindako lanari esker ezagutu ahal izango dute Pol-Polaren historia, argazkitan noski.

Argazkilari mendizaleak

Mendiko elkarteak, argazki-elkarterik ez zegoenean, bere barne hartu zuten organigraman sartzen ez zen atal bat. Pol-Pol Mendizale Taldea lehenengotariko bat izan zen eta ekintza berriari laguntasun osoa eskeini zion. Laborategi bat prestatu eta ikastaroak ematen eta erakusketak egiten hasi zen.

Horrela, gaur egun, ezin daiteke Bergaran argazkia Pol-Poletik banandu. Gure aintzindariak hartutako lehen inudietan ikus daitekeenez, eguneroko ekintza handiak eta lorturiko gailurretan bizitako ahaztezinako momentuak, gordetzeko balio izan zuten. Argazki-taldea sortu eta 23 urte geroago balore hauek bizirik irauten dute, baina teknika eta taldeko partaide garenon pentsamoldea aldatu egin da, edo hobe esanda, bilakaera bat

izan du. Pol-Poleko zuzendaritzak laguntzen gaitu eta lehenagoko laborategi eta lehenengo haundigailu baietatik (orain Zientzia Museoan), ondo ekipatutako laborategi bat izatera pasatu gara, zuri-beltzean zein koloretan ere lana egiteko.

Mendizale-argazkilari prototipoa ere ez da lehen-go bera: kamara, mendiko ekioparen osagarri gisa erabiltzetik, mendiko ekiopoa, argazki ekioparen osagarri gisa erabiltzera pasatu gara, argazkigintzarako irteerak, mendi-irteerei aurrejarriaz. Esandakoa, aurrerapen handiak.



Benito CANTERO

Afizioari eutsi

Bergarako gazteriarikalean ibiltzeaz gain, beste aliatibak bat eskeintzen dion gazte taldea osatzen dugu.

Gure helburua ez da beti gailurra lortzea, baizik eta giro onean eta lagunartean mendian egun on bat pasatzea.

Horretaz gain, irteera hauekin, Euskal Herriko mendi eta txoko ezberdinak ezagutzeko aukera dago.

Bergaran betidanik egon den mendizaletasuna mantentzeko asmotan sortuz GAZTE saila, eta mantentzeaz gain, mendizale-

tasun hori indartu nahi dugu.

Artikulo txiki hau bukatu aurretik, bergarar gazte guztioi gonbite bat luzatu nahi dizuegu, gure aktibitate ezberdinetan parte hartu nahi baduzue Pol-Poleko ateak beti irekita aurkituko dituzue eta.



Beñat URIARTE



GAZTE TALDEkoek, beste ekintza batzuren artean, bi akanpada nagusi antolatzen dituzte urtero; Aste Santuan bata eta uztaila aldera bestea. 14 eta 18 urteko tarteko gazte hauek helburu bat dute: mendizaletasunaz gozatzea eta lagunartean bada, primeran!

Katu oinak

Lau urteko ihardupide-arekin, Pol-Poleko sailik gazteena izango da eskaladakoa. Orain arteko iharduera, ona izan dela esan daiteke, nabiz eta sailen ohizko funtzionamendua ez izan. Hau da, ez dugu epe jakineko bilerarik, ekintza egutegi edo aurrekontu formalik eraman, "rokodromoan" egindako aldi-aldi bilerak bai-zik, hori bait zen, geure ustez, ekintzei lotutako abalik eta jende gehien biltzeko modua, sailaren izate bera agerian jarri eta jende berriari sarrera emanez.

Lanerako modu ganoragabeko samarra dirudien arren, kontrakoa erakutsi dugula uste dut. Lau urtetan zehar gauzatu ditugun ekintzak kontutan izanik zera azpimarra daiteke: Euskal Herriko lehenetarikoa "rokodromo" osatuenetarikoa eraikitzea (orain dela 4 urte), kirol eskalada Euskadiko lehen bi txapelketak Bergaran eratzeko eta San Blasen ireki diren eskalada


bide berriak (Bergara inguruan benetako haitzari gehitutako eskaladagune gisa). Horrez gain urteroko ekintzak ere aipatzekoak dira: eskalada ikastaroak, proiektzioak, "rokodromoaren" mantenua, etab...

Esan gabe doa, garai batean eskaladari buruzko "fanzine" bat ere argitaratzen genuela, GAILUR izenarekin 5. alera arte iritsi zena.

Eta amaitzeko esan, eskaladaren munduak aurrerapen haundia egin duela Bergaran, eskalatzailen maila ona izanik, urrutira joan gabe kirol eskaladatan Euskadiko Txapel-duna bertan dugularik. Eta, parte hartzaileei dagokionez, dagoeneko ez gara garai bateko lau katuak...



**Joseba
MOÑUX**



ESKALADOREEK mendiko paret bertikalenei, obstakulo latzenei ere aurre egiteko modua bilatzen dute, zenbaitzuk ere paret batetik zintzilik egoteko zoro samar egon behar dela dioten arren. Gure herrian bada, zoro asko omen dira, mendiko espezialitate honek sekulako arrakasta lortu baitu Bergaran azken bizpahiru urtetan; kirol eskaladan zein alpinoan maila bikaina lortu izan duten eskaladoreak ere irten dira.



GAZTETXO SAILA Pol-Polaren harrobia eta sail inportanteenetarikoa dugu. Tradizio haundikoa dugu Don Serafinek eman zion bultzakadaren ondoren eta mendizale askoren lehen eskola izan dela esan genezake.

Gaztetxoan transizioa

Orain 4-5 bat urte izango dira garai batean hain popularra izan zen gaztetxoan sailari berrindartze-ari ekingeniola. Gaztetxoan beherakada nabaria izan zen. Beraz, mendiak eza-gutzeko zaletasun hori pizteko tokirik aproposena eskolak zirela pentsatu genuen.

Joku eskolarren estruktura aprobetxatuz esperientzia guztiz positiboa suertatu zen, eskola ezberdinetako 80-100 bat ikasle elkartzeko lortu baitdugu antolatutako irteeretan. Horri jarraipen egoki bat ematea beharrezkoa litza-

teke, gaztetxoak-gazte bihurtzean, transizio horretan, konfliktu bat sortzen bait zaie; batetik, ez dira ausartzen gazteekin mendira irtetzerako nagusiegiak ikusten dituztelako eta, bestalde, gaztetxoekin irteeretan jarrartzeko jadanik nagusiak direla uste dute. Ikastetxe ertainek guk utzitako testigua hartu beharko lukete.



**Jesus
ALVAREZ**

Ipar eskia Pol-Polen

Gutxi gorabehera orain dela 12 urte eta gaur Pol-Poleko presidente den Andoni Larrañagak bultzaturik, gazte talde bat fondoko eskia egitera animatu ginen. Materiala erosi eta noiz lehenengo elurrak jausi itxoiten.

Bertako taldea txikia zenez, Eibarko Club Deportivo eski taldearekin batera hasi ginen asteburuetan irteerak egiten. Elurrik bazen Aralarrera joaten ginen igandetean eta bestela Belaguako aterpera asteburua pasatzera. Herrian elurra egiten zuenean ere kalean eta Gorla eta inguruko mendietan ibili ohi ginen.

Hasiera baitetan Eskiko federazioan apuntatu eta konpetizioan ibiltzen ginen, infantilen kategorian. Anekdota bezala esan bi bergarar (Iñaki Mujika eta Mikel Laskurain) Estatuko txapelketan izan zirela Baqueira-Bereten.

Denborak aurrera egin eta batzuk kanpora ikasketak egitera eta beste batzuk kale saltsa zela eta, giroa hozten joan zen eta taldea

bertan behera desegin zen.


Gauregun bakoitza bere kontuta ibiltzen gara, konpetizioetatik aparte, natur pasioak ematen, bildurrik gabe esan bait daiteke, naturaz gozatzeko eta bertan kalte gutxi egiteko eski mota hau eta mendiko eskia direla onenak. Baina neketsuagoak direnez, aldapak igo, lauean ibili beharra e.a., jendeak uko egiten die eta nahiago dute eski alpinoan aritzea. Hala eta guztiz ere, geroz eta zaletu gehiago ari da irabazten ipareskia gure inguruetan, eman ditugun arrazoiengatik eta baita ere merkeagoa delako ere, bai materiala eta bai pistak, pistetatik kanpora ere ibiltzea erreza delarik.

Pena da gaur egun Pol-Polak eski alpinorako irteerak soilik prestatzea. Agian berriz ere irteerak egiten hasteko ordua litzateke...

Hilario
MANZANEDO



BETERANOAK garai batean elkarteko talderik sendoena izan genuen arren, gaur egun gaztetxoek atzetik dira irteerei dagokionez. Hori bai, oraindik sasoiak direla demostratzen dute behin eta berriz.



ESKI SAILAK urtarrietik martxora bitartean zentratzen ditu bere aktibitateak. Mendi gailurrak txuritu bezain laister hamabostean behingo astebukaeratan Frantziara edota Pirineotara joaten zaizkigu herriko skiadoreak. Azken urteotan hazkunde nabaria izan duen saila dugu honako hau eta edade guztietako jendea biltzen duela dugu bere ezaugarri nagusienetako bat. Aurten, Aste Santuan egiten duten ohizko irteera Alpetetara joateko posibilitatea aztertzen ari dira.

Nagusiak be, Zorionak!!

Talde hau gehixen be, jentiarri mendixan beste irtenbide batzuk emon nahi-xan sortu zan, beti Gorla, Arrola eta Urbixan ibili bi-harrian paraje berrixak ezagutzeko erreztasunak eskeintziarren.

Gainera, autobusian joanda, erosuago danondako eta zeesanikez, bertan sortzen dan ambientillua, batez be Pirineoko buelta sonauan.


Hasieran, adineko jendixan pentsautila egin zan, baina txartela hartzerakuan ez dogu D.N.I.rik eskatu

oin arte.

Urtian 7 irteera eitten diltugu, eta 4-5 ordu ingurukuak izaten die, Pirineokua ezik, hau 2 egunetakua, "Gran fondo" kua izaten da ta.

Hamar bat urte daroia-gu, eta makina bat tokitxo ezagutu dogu...

Gotzon
BIKUÑA



Mendia Bizirik: Ekolojiaren oreka

Hasiera batean, mendizaletasuna kirol maila lantzen hasi zen; kirola, denbora pasa, geroago arte eta kultur ekintzak bereganatu zituen; argazkigintza, mapagintza, bide eta iturriak konpontzea e.a.,

Denbora aurrera joanez, natura eta arkeologia ere bere baitan hartzen ditu; mikolojia, dolmenak, landarak, e.a. medio direlarik.

70. hamarkadan, aurretik datozen kezka horiek Pol-Poleko "gaztetxo" mugimenduaren barnean gorputzen dira, bere barneko taldeen aztergai bezala.

1.984ean, "gaztetxo"-ek bultzatutako esparru horretatik MENDIA BIZIRIK taldea sortu zen. Hau sortu ere Pol-Polaren barruan eta Pol-Polaren barrutik; esan daiteke aurreko hamarkadetan garatutako prozesuaren ondorioa dela, bai kontzeptu aldetik, bai talde berria osatzen duten pertsonen aldetik.

84tik lanean

Mendia Bizirik, mendizaletasunak bizi zuen giroan eta mendiak zuen egoerari erantzun bat ematen hasi zen, sekzio oso bezala.

Hasiera horietan, mendien esplotazio eta mekanizazio gogorrak gorakada indartsu bat izan zuen eta egoera honen aurrean sortutako defentsa-beharrei erantzun bat ematea izan zen sortzaileen lehen egin-kizuna.

Ekintzak kanpaina bezala bideratzen ziren (faunaren defentsa, podak, hegaztien haztea, ehiza-ezaren aldekoak, intsektiboroen aldekoak, erreka garbiketa, hitzaldiak, eskoletarako materialak, e.a.). Mendiaren



Mendia Bizirikek eskolako haurretatik hasi eta partaidetza zabala lortu du.

erabilera desegokiak ikusita, ohiturakeria eta lan kaltegarri askori aurre egin behar izan zaie urte hauetan zehar, gai hauen berritzea lortzeko bidean jartzeko asmoz.

Joan diren urte horietan ez da dena alperriko lana izan; pozgarria izan da mendizaleen harrera ona, kontzientzia maila eta solidaritatea.

Gaur egun, ukaezina da, mendizaleak mendia erabiltzeaz gain, ondo ezagutzen dituela bere aberastasunak eta bide batez, mendien balio naturala birlortzeko eta babesteko egin behar diren indarrekin lotuta dagoela. Lotura hau talde batzuetan argia da gaur egun, beraien barnean ekolojia sailak dituztelarik, eta nahiz eta sail hauek ez izan, beraien kezka eta erabaki babestailea kaleratu dute ekintza batzutan parte hartuz.

Parte hartzea

Mendia Bizirik taldearen aktibitateak Bergarako he-

rriri zuzenduta egon dira gehienetan, bailara mailan ere hainbat konpromezu bultzatu badira ere.

Eskolako haurretatik hasi eta mendizale helduetaraino, parte hartze zabalean mugituz, eta bakoitza emateko gai dena onartuz aurrera egin du 8 urtetan

zehar Mendia Bizirik taldeak.

Nahiz eta batzutan Institutuzio, tekniko edo interes ekonomikoei aurre egin beharra izan, eztabaida gogorrak sortuz, honek ere merezi duela uste dugu, azken finean denon eskubide eta interesen alde delako.



Pol-Pol Mendizale Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira urte osoan zehar, eta horien artean uda partean egingo diren bi espediziook aipamen berezia merezi dute. Hiru bergarar eta bilbotar batek, Pakistaneko Trangoko Dorreak eskalatu eta Nepaleko Dhaulagiri zortzimilakoa igoko dute. Bi espediziook 5 milioi inguruko aurrekontua dute.



Himalaya konkistatzera

Dhaulagiri eta Izenik Gabeko Dorrea, bergarar espedizioen helburua

Izenik gabeko Dorrea: Karakorumeko zerura begira

Jon Lazkano eskalatzaile bergararrak eta Kike De Pablos durangarrak, ekainaz uztaila bitartean, Nepaleko Karakorumeko Drangoko Dorreetan, Izenik Gabeko Dorrea igotzeko saiakera egingo dute.

Munduko dorre eta parreta zailenak eta izugarrienak biltzen dituen parajea, Karakorumeko zerura begiratzen duen granitozko parreta izugarria eskalatu eta 6.251 metrotako gailurra zapaltzeko ahaleginak egingo dituzte.

Izenik Gabeko Dorrea britainiar bikote batek eskalatu zuen lehen aldiz 1.976ko uztailaren 8an. 1.988an, berriz, lau eskalatzailez osatutako espedizio murtziar batek, 19 egun paretatik zintzilik egon ondoren, gailurrera iristea lortu zuen.

Bergaratik irtingo diren Jon eta Kikek, euskal mendigoizaletasuna goratu dezakete aurtengo udako saiakera arrakastaz amaitzen badute. Horrela gertatzen bada, Izenik Gabeko Dorrea eskalatzeko duten lehenengo euskaldunak izango dira.

Direnak direla, Jon Lazkano paraje haietan ibilia da lehenago, hain zuzen ere 1.990 urtean, telebistarako

irudi batzuk grabatzen zebilela eta eguraldi txarrak eraginda Dorre Haundiko gailurretik metro gutxitara geratu zenean.

Dhaulagiri: mendi zuriaren haunditasuna


Jon Lazkano eta Kike de Pablos, Karakorumetik bueltan, Damaso Gallastegi eta Luis Ignacio Goenagarekin bildu eta Himalaya aldeira joango zaizkigu laurak, Dhaulagiriko gailurrera igotzeko asmoarekin. Irailurria aldean, Pol-Poleko bigarren espedizioak munduko zazpigarren mendi gara-

iena (8.172), oxigeno barik atakatuko du.

Nepaleko Dhaulagiri edo "mendi zuria", zortzimilako guztien artean zailena omen da adituek diotenez. 1.808tik ezagutua, 1960 urtean lehen aldiz zapaldu zuten gizonak, suizarrak izan ziren. Naparrek, 1.979an lortu zuten gailurra. Aurten bergararrak saiaturiko dira eta ziur gaude lortuko dutela.

Aipatu, azkenik bi espediziook, bai Pakistan aldera zein Nepalera egingo direnak, biak zeharo ezberdinak izanik, gauza hamankomunik badaukatela: alde batetik, bergararrek bultzatutakoak direlako eta bestetik, biak estilo arinekoak izango direlako.

Hiru bergarar eta durangar bat gailurraren bila



Jon Lazkano

23 urte ditu eta gazte-gaztetatik eskalatzen dihardu. Estatuko eta munduko eskalatzaille onenen artean aurkitzen da. Lanbidez eskalatzaille, *Desnivel*, *Pyrenaica* edota *Extrem* mendi aldizkari espezializatuetako kolaboratzailea da.

Oso gutxi dira estatuan, berak beste eskalatu dutenak, horregatik, bere kurrikulum zabal eta mamitsuaren zati bat bakarrik aipatuko dugu jarraian: 1.987 eta 88an Estatu Batuetan, Yosemite Natura Parkeko El Capitan paretan hainbat bide eskalatu zituen. Patagonia aldean, bestalde, 1.988 eta 1.991an ibili zen eta Paineke Dorrean bide berriak ireki zituen. Karakorumeke Drangoko Dorreak eskalatzen, TVEko *"Al Filo de lo Imposible"* saiorako irudiak grabatu zituen 1.990an...; ETBko *"Doctor Livingston Supongo"* saiorako ere zenbait erreportai egin izan ditu.



Horiez gain, Dolomitetan, Alpeetan, Piriniotan eta beste hainbat tokitan, pareta zailenak eskalatu ditu.

Kike de Pablos

Euskal Herritik irten diren mendi espedizio garrantzitsuenetan parte hartu du, tartean, 1.980an Everesteko gailurra zapaldu zuen euskal espedizioan. Makalura hainbat aldiz joana da eta baita Lhotsera ere. Zortzimilako ugari egin dituen beterano honek 39 urte ditu eta Himalayako mendiak ondo baino hobeto ezagutzen ditu.

Biologoa da lanbidez, Iurretan jaioa, eta telebista saioetarako erreportaiak sarri egin izan ditu.

Biologo bat, mediku bat, irakasle bat eta eskaladatik bizi den Jon Lazkano dira espediziolariak




Damaso Gallastegi

Damaso Gallastegi, mendi, natura, abentura..., zaletu amorratua dugu. 33 urte ditu eta Aranzadi Ikastolako irakaslea da. Pirinio eta Picos de Europako paretak sarri eskalatu baditu ere, hainbat espediziotan

parte hartu izanagatik ezagunagoa da. 1.977tik, Alpeetara, Atlasera, Kilimanjarora, Patagoniara edota Aconcaguara egin izan ditu espedizioak. Dhaulagiri bere lehen zortzimilakoa izango da.

Luis Ignacio Goenaga

Luis Ignacio Goenaga, 34 urte, medikua eta Heziketa Fisikoko irakaslea da. Mendizale izateatik baino gehiago kirolari, korrikalari, izateagatik nabar-



menu da. Donostiako marathoia eta Behobia-Donostia proba korritzen urteak daramatza. Horrez gain, Piriniotan eta Picos de European ere ibilia da. Espedizioko medikua izango da eta Damasorekin batera, azpiegitura lanak egingo ditu, tontorrerako saiakera, Jon eta Kikeren ardura izango delarik. ■

Drangoko Dorreen ikuspegi orokorra. Bergararrak eskumaldeko tontorra eskalatuko dute.



ere egin daiteke.

Bergarako Eroskiko Komite Lokalekoak aspalditik ari gara eskolaume zein nagusiendako informazioa eta formazioaren alde lan egiten. Gure helburua: ingurugiroa errespetatuko duen kontsumitzailea lortzea, gutxiago kutsatzen duten produktuak aukeratu daitezten, eta kontsumitu eta erabiltzeko orduan norbera bere jokaeraren erantzule izatea.

Ingurugiroaren alde jokatu, neurri aurrerakoiak hartuaz

Orain dela 8 bat urte, Eroski aintzindari izan zen CFSak salmentatik kentzen, eta gaur egun ez dago halako propulstasagailurik daukan spray-rik merkatuan. Halako neurriak hartzeari esker, produktugileak ere euron gaiak ingurugiroarekiko eraginaren arabera moldatzea bultzatuak izan dira.

Eroskiko Komite Lokaleko kideek Eroskin erabiltzen ziren plastikozko poltsetaz ere arduratu ziren, eta orain ingurunearekiko errespeto haundiagoa suposatzen duten poltsa, e.a.ak erabiltzen dira.

Honez gain, Bergaran, beste Eroski askotan bezala, erabilitako pilak batzeko kanpaina bat burutzen ari da, kontsumitzaileari eta herritar guztiei gure izadia osasungarri zaintzeko bide bat eskainiz.

Hauek dira Eroski bezalako kontsumitzaile elkarte batetik arazo hori murrizteko egin daitekeenaren muestra bat. Halako inizatibak, hezkuntza egokia eta sensibilizazio-iharduerekin lortuko dugu jendeari ingurunea zaintzeko dauzkagun posibilitateen aurrean begiak irekitzea.

Kontsumoa eta Ekologia

Ikusi eta egin beharreko asko

Euskadiko komite lokala Bergaran

Azken garai honetan ezinbestekotzat jo izan da eguneroko kontsumoak eta ingurugiroaren hondametak duten harremana. Lehen, denongan eragina daukan arazo honetaz ematen ziren eztabaidetan egunerokotasunak sortutako arazoei irtenbide orokorrak ematen saiatzen ziren. Zorionez, gero eta garrantzi haundiagoa ematen zaio kontsumitzaile bakoitzak ingurugiroarekiko

daukan zerikusiarri.

Kontsumitzaileak kutsadura dakar eta kontsumitzaile kutsatzailea da. Hala ere, errealitatea, bere honetan ikusi beharra dago, berez, ez da hain erabakikorra. Kontsumitzailea beharrezkoa da,

bai gure oinarrizko beharrak asetzeko eta bai gure gizar-tean bizimodu era edo kalitate mantentzeko. Dena den, gure jokaerak bidezko-agoak izan ezker, behar horiek asetu eta gure ingurugiro naturala errespetatu

"Pilak batzeko kanpaina burutzen ari gara, kontsumitzaileari gure izadia osasungarri zaintzeko bide bat eskainiz"



Pol-Poleko iturria berriztu ondoren inauguratu zeneko eguna (1.960). Argazkian, ezkerretik eskumara: Luis Payros, Jose Inazio Etxeberria eta Luis Laskurain alkatea.

Mendigoizale antolakuntzan
oinarri batzuk jarriak,
aurtengo hontan
50 urte dira etorriak.
Ordutik hona aseak hainbat
bergararren egarriak
hargatik arto esan dezake
gaur Bergarako herriak,
ur eder franko eman duela
Pol-Poleko iturriak.

ARANTZAZU LOIDI

Berrogeitamar urte hartzera
iritxi zaigu Pol-Pola
aitortzen dizut zu eskertzera
lehendik zorretan nagola
zu zera gure ilunaldiak
pizten dituzun kaiola
pake santuan gure jainkoak
luzaro lagun daiola.

*JESUS ALBERDI
Egileor I*

San Matei Uberan ere

Emeterio eta Zeledonio doneak, anai eta martiriak, Kalahorrakua ziran; erromatarren garaian, IV garren gizaldian hil zituzten. Hiri horretako gotzaia izandu zen gizaldi askotan Deba ibai ertzetako herrien gotzaia, Bergarakua ere bai.

Bergarako kaletarrok agian gehiago ezagutzen ditugu Osintxuko martirixak, baiñan horiek Uberan ere badaukate ermita bat. Bere ondoan "Santikua" baserria dago. Sarrerako giltzaren jabe auzoko baserriak egiten dira, urtetik urtera txandakatuz. Ez dakigu noizkoa den. Isastitar Lopek 1.625an bazegoela adierazten du.

Ermita hau oso gutxi aldatu da azkeneko gizaldietan, eta horrek bere bitxitasuna ematen dio. Herrikoa den arte mailan sartu genezake. Sartaldeko aldiak ormarik ez dauka; besteren bat

edo beste gehiago badago horrelakua inguruan. Ormaren orde zurez egindako sare bat altxatzen da goi samarrañone bere zabaltasun osoan. Horrela, barrenera sartu beharrik gabe, errezatu lezake edonork aldarera begira eta honen ondoan; habeak ikusten dira eta zielorrasurik ez dauka, lehengo ermita batzuen antzera, ni joan nintzan urteetan horrela ikusituen behintzat.

Aldarean doratutako erretaula tiki bat dago margotutako kuadro batekin eta bere albolarra, ezker eskubi, bi anai martirien zurezko tallak daude, 40 zentimetrotakua, beren buru moztuak eskuetan daukaten bandeja batean jasotzen dituztela. XV garren gizaldiko irudiak dira.

Imanol Sorondo



LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA

**ORDEZKARIA
BERGARAN**



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.**

BELANBIDE, Z/G · 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54



Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



ETXE- -AUNDI

Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS

oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA

Mujika

Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

Mendira irtetzeko ohiturarik badaukazu?



Joaquin Polvorosa
51 urte, langilea

Lehen kuadrilarekin ia igandero joaten nintzen baina azkenaldian ez dut irteerarik egin.




Begoña Unamuno
57 urte, etxekoandrea

Orain ez naiz lehen beste joaten, baina asko gustatzen zait, batez ere paseatzea.




Elisabeth Mendizabal
22 urte, ikaslea

Normalean ez naiz mendira joaten.



Jose Ramon Larrañaga
34 urte, langilea

Mendirako zaletasun berezirik ez dut. Joaten naizenean mendiko bizikletan ibiltzera joaten naiz.



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Demokrazia guztiontzat berdina?

Harrituta gelditu nintzen joan zen egunean egunkaria hartu eta "gure politikarien" soldata % 33an igoko zela irakurtzerakoan. Noraino iritsi nahi dute? Nire ustetan nahikoa eta gehiegi irabazten zuten lehen ere, baina badirudi beraien ustetan ez zela horrela. Eta noski, guzti hori gure poltsikotatik ateratzen da.

Bestalde, hor ditugu beraien lanpostuaren alde burrukatzen ari diren langileak. Nork eramango ditu aurrera langile hauen eskariak? Beraiek, noski, ahal dutena egingo dute lanpostu horiek mantentzeko, baina zoritxarrez, hori nahikoa ez dela izango susmatzen dut. Eta jadanik, eskaria ez da lanpostu edo soldata hobetzea, lanpostu bat mantentzea baizik.

Burdingintzaren sektorearen egoera larriaz denok jabetu gara, eta badirudi oraingo honetan horrek ez duela irtenbiderik. Baina arazo batek beti du bere irtenbidea, gogo eta borondate ona jarri baino ez dago. Baina "gure politikarien" borondate ona aspaldi ahaztua gelditu dela susmatzen dut, edo behintzat hori pentsa arazten dute sarri askotan.

Eta ziur naiz guzti hori ekonomiaren planifikazio txar baten ondorioa dela, eta ez beste inoren errua, beraiek sinistarazi nahi diguten bezala.

Ainhoa Lete



Zerrenda irekiak, aukera libreak

Politikaren munduan gertatzen ari direnak ikusita birmoldaketa sakon bat behar beharrezkoa dela, politikoei salbu, beste guztiek onartzen dute. Zerrenda itxien bideak korrupzioa dakar baina, batez ere, klase politikoari mesprezia eta ildo horretatik jarraituz, demokraziaren salaketa.


Baina ez dira korrupzioaren salaketak demokrazia pozintzen dutenak, baizik eta politikoen jokaerak. Instituzioak beraiek direla diote eta, logika horren arabera, beraien aurkako hitzak demokraziaren kontrako sutautsa direla.

Era berean, ikerketa komisioren aurka daude, azken finean, denak izkutatzekoak dituztelako. Bost axola orduan botereen kontrola, nahiz eta demokraziaren muin baliotsuena izan. Hautesleok ez ditugu politikoak aukeratzen, hauen zerrendak alderdien buruan erabakita daudelako. Aukeratzeko erizpideak: diziplina, menpekotasuna eta ahulezia. Gehienak siglaren funtzionarioak dira eta bere nortasun guztia alderdiko jauntxoaren aurrean amaitzen zaie. Behar den bezala lan egiten badute, berraukeraketa.

Nola zigortu hauteskundeetan politiko baten jokaera, mesprezagarria bada?. Gaur egun ez dago aukerarik.

Aldiz, zerrenda irekien sistimak aukera hori ematen digu. Dena den ulergarria da estatuko klase politikoaren beldurra hauteskunde legearen aldaketari. Urteak darमतzate bere jokaera babesteko legeak onartzen..., jendearengatik gero eta urrutiago daude. Eta horrelakoak gertatzen direnean, herrikoi eta demagogoen ordua iristen da. Hor datza arriskurik haundiena.


Iñigo Urrutia



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ederJU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

MINER Ardo onak, ardoaak jakina


Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
 - Onduline
 - P.V.C.
 - Blokeak
 - Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

EXPO neska

Bilbon egindako azterketara 3.000 pertsona inguru aurkeztu eta Sevillako EXPOn lan egiteko aukeratutako 25 pertsonen artean **Marisa Puertas** bergarra dugu. Kongresuetarako Azafata ikasketak burutu dituen 26 urteko gazte hau, Sevillan ematen ari diren ikastaroa amaitu ondoren, EXPOko pabeloien batean izango dugu lanean apiriletik urrira bitartean. Ea bere laguntzarekin gauzak hobetzen doazen...



Bazkalosteko solasa

Joan den asteazkenean **Antena 3** irrati katearen tertulia gastronomikoa Lasa Ostatuko jantokian grabatu zen. Besteak beste, Josetxo Lizartza Donostiako emisorako zuzendaria, Mauri Urrutikoetxea Donostiako Sukaldari Eskolako zuzendaria, Iñaki Irusta Expo 92eko Euskal Pabeloien ardura-duna eta hainbat kritiko gastronomiko bildu ziren mahai baten inguruan. Koldo Lasak prestatu zien bazkari ederra goraiatzeaz gain, pil-pilean dauden hainbat gai jorratu zituzten bazkalostean.

ELKAR 

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



□ **Sorgin-dantza**

Orain dela 65 urteko ohitura berreskuratuz, **Antzuolako Dantza Taldeak** sorgin-dantza dantzatu zuen karnabal domekan. Inguru honetako jatorria eta karnabal kutsua duen dantza honetan, 12 dantzarik eta hauen buruzagiak hartzen dute parte. Dantzari guztiak mutilak izanik, 6 mutil eta beste 6ak neskaz jantzita doaz; aurten, gainera, lehen karnabaletan azaltzen ziren artza, domadorea eta tximinuaren laguntza izan zuten antzuolarrek, kobradorea bakarrik falta zelarik. Antzuolarrek *debalde* egin eta ETBko *Begirik kendu gabe* saiora ere gonbidatu zituzten.

Zertan dihardute ba?

GERMAN MURUAMENDIARAZ



Ostiralean izandako ezohizko plenoan, 28 urteko langile bergarar honek bere zinegotzi kargua zin egin zuen, Jose Luis Irazabalek Gabonetan Herri Batasunan utzitako hutsunea beteko duelarik aurrerantzean.

BALENTIN GABILONDO



26 urteko elusuar hau EHNEko presidente berria dugu nekazarien elkarteko azken batzarrean erabaki zenez. Balentinek orain arte presidente izan den Alberto Aldasoro ordezkatzan du nekazarien zuzendaritzan.

□ **Dorletan**

Bergarako zikloturistek orain bi aste eman zioten hasiera aurtengo denboraldiari Dorletara egin zuten ohizko irteerarekin. Guztira 30 bat lagun bildu zirela, urtean zehar istripurik ez izateko itxaropenaz, txirridularien patroiarri loreak eraman ziz-



kioten eta bizikleta *gosea* asetzeko, aste honetan bertan hasiko dira irteera *ofizialekin*. Herriko zikloturistak karreteran dira berriz.

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

IZADI
Santiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

Umore giroan

Juezian, botia bota dok

Marzelok multatxo batzuk zor zitxuan Juezian. Ala ta guztiz be, bolatokixan apusturik egin barik ez zan geratzen. Orretan tope egin dau juezakin:

-I Marzelo, zelan dok ori? Juezian zorrak ordaindu barik eta bolatokixan dirua jokatzene!!

Ta Marzelok:

-Badarik ba, juezian botia bota dok. Jokuan barriz, arriskua daok jasotzeko.

* * *

Daukanak erakusten jok

Marzelok konbitxa artu zeban azken orduan, sargueskalluekin afari-merienda baterako. Itxura danez, naiko jende

inportantia zoian. Marzelok nai zeban arkondara zuri eder batekin agertzia, baiña arkondaria oindiok gertatzeko zeguan eta ez jakin noiz prest egongo zan be. Orduan, ipiñi dau bufanda aundi bat eta naiz ta bero egin, an agertzen da maira bufanda aundi-xorrekine.

Esaten detse lagunak:

- Zer Marzelo, gaixorik ago ala?

- Katarro aundixa jaukat eta medikuak esan jestak deskuidauta be ez kentzeko bufandia.

An zeguan Marzelo izardixa darixola. Alako baten, lagun bat konturatu zan fraka inguruan arkondara antzeko zegozer urtetzen zetsala.

- I. Marzelo, arkondaria daukak bistan.

- Daukanak erakusten jok!!

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Laminen-eskaratzeko legenda(II)

Aurrekoan mutilak lami-na ezagutzen zuen. Legenda horrela jarraitzen du:

... "Baita biak ezkon-itza elkarri eman ere; baiñan leenik neskatxaren adina motillak asmatzekotan, motillak bere auzoko andra zaar bati galdetu ea Kobaundiko neskatilla ederrak zer adin ote zuan. Andra ori, Kobaundialdera jua, eta an, arpe aurrean, atekari atzekaldea emanaz, makurtu eta, bere anka bien artetik burua atzeruntz aterata, arpeari begira jarri. Badator ango neskatxa eta, aurrean alako ikusgarria arkitzean, arriturik dio: "nere biziko eun da bost urte aetan ez det olakorik ikusi". Andrea bereala itzuli omen zen Korriorera eta motillari esan Kobaundin entzun zuana. Orduan neskatillaren adina azaltzen dio motillak berari, ustez eta ala ezkontzen al zirala. baiñan moti-

llaren amak dio semeari: "begira leenik nolako oiñak dituan arpeko neskatilla orrek". Arpera jua eta motillak ikusten dizkio oiñak neskatxari eta gero amari dio: "Kobaundiko neskatxaren oiñak aaterartenak bezalakoak dira". Orduan amak: "ori ez dek gizakia, lamiña baiño; orrekine ezin ezkontzen al aiz". Motillari bere barruna arrunt belundu omen zitzaion eta gaixotu; baita laster ill ere. Arpeko lamiña Korriorera, gaubela egitera, jetxi omen zan eta, intxaurrean azaletik atera zuan maindire batekin bere maitearen soina estali. Illa elizkizunera eta ehortzera zeramakiela, lamiñak ere lagundu omen zion Garagartzako elizateraño. Andik bere arpera gero, negar eta negar"

Xabier Larrañaga

ARDATZA

Brikolaketa

ATEAK
eta
HORMA
ARMAIRUAK

Mahasterreka 4
☎ 76 18 93



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Senior gizonen saskibaloitza taldeak

3. mailara igotzea lortu du

Bergarako saskibaloitza nagusiak 3. mailan izango ditugu datorren denboraldian. Igoera lortu arren, Kirol Elkartearekin ez omen daude oso pozik; horra hor polemikaren bi eritziak.

Bergarako senior gizonen saskibaloitza taldeak denboraldi bikaina burutu eta hirugarren mailara igotzea lortu du joan den asteko ligako azken partidua jokatu ondoren. Politeknikoren aurka etxean arren, bergarrek denboraldi osoan jokatuak 20 partiduetatik hiru besterik ez dituzte galdu (Zarautz eta Eskoriatzaren aurka kanpoan eta Politeknikoren aurka etxean), maila oso erregularra erakutsiz eta azken ihardunaldietan lidergoari eutsiz.

Elkartearekin haserre

Igoera lortuta, Jose Ignacio "Txiki" Oyarzabalek entrenatzen duen taldeak erronka berri bati egin beharko dio aurre hurrengo denboraldian. "Kategoria ezagutzera" ir-

tengo direla dio Txikik. Entrenatzailearen asmoa aurtengo jokalariekin jarraitzea da, bi jokalarik taldea utziko badute ere, bertako jendearekin jokatzea baitute helburu. Txikik "jokalariek erakutsitako gogo eta ilusioa eta polikiroldegian orduz kanpo entrenatzeko jaso izan duten laguntza" goraiatu nahi ditu, "taldearengan interesa azaldu duten guztien lana azken batean".

Talde honek, ordea, ez du eritzi bera Bergara Kirol Elkartearengan, "laguntza eskasa jaso dugu, bai ekonomia aldetik eta

baita moral aldetik ere. Presidentea ez da kiroldegitik agertu denboraldi osoan. Direktibak futboleant jarri du bere konfiantza osoa eta beste sekzioetako taldeak baztertuta gaude". Jendearen laguntza eskatu nahi dute saskibaloizaleek, "estruktura aldatu beharra dago, horregatik patrozinatoreren baten laguntza beharko genuke; orainarte geuk egin izan dugu lan guztia eta horrela jarraitzea oso zaila da, jendea nekatu egiten da, azken batean berdinak gabiltzalako kirol honen alde lan egiten".

Garitanoren erantzuna

Alex Garitanok, Bergara Kirol Elkartearen izenean, zera adierazi digu: "gure partetik ez dago inolako arazorik, presuponestoa milioi t'erdikoa izanik, milioi bat pezeta eman bait diegu. Dena den, futbolekoek beste kobratu nahi izatea ezinezkoa da, elkartearen sekzio guztiak futbolari esker irten baitira eta horietako inork ez du hainbeste errekurtsio sortzen. Gu, dena den, ahal dugun ainako dirulaguntza ematen saiatuko gara".



Senior taldea ez dago baterre pozik elkartearekin.

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA



LASA
JATETXEA

Orain ostiral eta larunbatetan zabalik.

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29



Bigarren komunioa San Pedroko Parrokian

Buruko arraia zuzen eta kopeta dotoreekin ageri da hemen jendea. Debozio aurpegia jartzen du izkina horretan batek; kamaraz fidatuko ez balitz bezala, zeharka begiratzen du bere albokoak. 1.958 aldera San Pedro Parrokian bigarren komunioa egin zuen taldea dugu. Jende sasoikoa oraindik, Ezkerretik eskumara,

Lehenengo ilaran: Iñaki Lazpiur, Migel Angel Unamuno, Migel Angel Ena, Jose Ramon Lozano, Jabier Igartua, Patxi Berraondo eta Fermin Aranguren.

Bigarren ilaran: Pedro Guallar, Pedro Aranguren, Jose Ramon Arietaleanizbeaskoa, Inazio Alberdi, Pedro Luis Aranguren eta Jabier Arregi.

Hirugarren ilaran: Jose Ramon Arriaran, Jabier Iñarra, Jesus Lekuona, Jose Larrañaga, Jose Antonio Agirrezabal eta Jose M. Rubio.

Laugarren ilaran: Don Jose Maria Azkarate, Maria Teresa Arriaran, Rosario Goenaga, Maria Cruz Andueza, Maria Angeles Lonbide eta Pili Fernandez.

Bosgarren ilaran: Maria Isabel Fernandez, Nati Garitano, Arantza Balzategi eta Nati izeneko bat.

Estepan Plazaola

Argazkia: Pili Fernandez

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargarai 10,
Tfnoa: 76 38 32

LAZKANO

OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

YAZKI

UME

GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3
Tfnoa: 76 16 54

Ibargarai 8
Tfnoa: 76 54 73

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsaldez).

Antzuolan pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua salgai Artzamedin. ☎ 76 52 79 (gaez).

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua alokatzen dut herriaren erdian. ☎ 76 44 35.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Adria 440 karabana salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 43 98.

6-8 urtekoentzako Fondoko eski pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

Trabeslako esklak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Mendiko Kamet bota pare bat (44a) salgai. Oso merke. ☎ 76 24 64.

Hergo karabana salgai (4,20 metrotakoa eta ekipatuta). ☎ 76 17 61.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

3 pertsonarentzako Iglu kanping-denda berria salgai. ☎ 76 34 95.

R-5 kotxea salgai (SS-P matrikula). Kanpin remolke eta guzti, nahi izanez gero. ☎ 76 20 87 (goizez). ☎ 76 28 07. (arratsaldez).

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 76 14 79.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdi-automatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

LANA

Emakumezko euskaldun batek etxeetan interina lan egingo luke. ☎ 76 21 33.

Baserriko edota baserriatik datorren gizon gaztea behar dut nekazaritzako produktuak saltzeko. ☎ 76 12 21.

Hildakoak

Ascension Aranburu Gallastegi
martxoaren 4an, 83 urte.

Jaiotakoak

Irene Larrañaga Gomez
otsailaren 26an.
Jon Elorza Sadaba
martxoaren 4an.

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65



**TEMPRA
STADIO**

1.535.000 pzta
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT
ZERBITZU OFIZIALA

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industrialia, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA